



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-09-15

VIIURTEA 1.776.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Kontxako Banderan egin duten lanarekin «gustura»

TOLOSALDEA Tolosa-Getaria nahiz San Pedroko arraunlariek euren «lan txukuna» goraiatu dute 3

Leitzako V. Pilota Txapelketak baditu irabazleak

LEITZA Bost mailatan jokatu zituzten finalak, jendez lepo zegoen Amazabal pilotalekuan 7



Nagusien mailan Onsalo-Iriartek irabazi zuten txapela. Oinatz Bengoetxeak eta Asier Olaizolak eman zien txapela. HITZA

Aiert Beobidek hartuko du Alurr taldearen gidaritza

IBARRA Edu Murumendiarazen ordez ariko da donostiarra; aurki hasiko dute ikasturtea 6



Sardina jatea egin zuten Kalebeherako jaietan; Alegiko auzoko ekitaldirik jendetsuena izan zen hau. IDOIA LAHALDAGA

UDAKO AZKEN TXANPAN, AZKEN FESTA ARRASTOAK

TOLOSALDEA Poliki-poliki, amaituz doaz eskualdeko herrietako jaiak; asteburuan, Kalebeherako eta Zizurkilgoen txanda izan da 4



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta
Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Kultur tailerretan matrikula egiteko epea zabaldu dute

Kultura » lazko ikasleek hilaren 18a baino lehen egin dezakete, eta berriek hilaren 21etik 25era; guztira 9 ikastaro daude.

ERREDAKZIOA

Ikasturte berriari ekitearekin batera, kultur tailerretan izena emateko matrikula epea ere zabalik dagoeneko. Hala, beste urteetan bezala, eskaintza zabaldu izango da gaztetxoenetik hasi eta helduentzat.

Ostirala bitarte izango dute matrikula egiteko aukera lazko ikasleek, eta epe horretatik kanpo eginez gero, ez zaie lekua erreserbatuko. Ikasle berriei dagokionez, datoren astean egin beharko dute, hau da, hilaren 21etik 25era. Kasu honetan, eskaerak lekuak baino gehiago badira zozketa egingo dute: hilaren 29an jakingo lirateke zozketaren emaitzak. 8 matrikula baino gutxiagoko taldeak bertan behera geratzeko aukera dagoela azaldu dute.

Matrikula ordaintzerakoan aukera desberdinak egongo dira. Ikasturte osoko ordaintza, esaterako, kopuru osoa ordaindu ahaliko da matrikula egitean, edota ordaindu %50 eta abenduan beste %50. Urritik abendurako nahiz martxotik ekainerako matrikula %50 izango da, eta urtariletik ekainerakoa %75.

Halaber, matrikula hauen gainean diru laguntzak ere egon daitezke. Tolosaldean errodatutako familia ugarien kasuan, %50eko murriztapena izango dute ikastaro guztietan, eta langabezia edo egoera sozial berezian daudentzat kuota berezia jarri ahaliko da.

Gazte nahiz helduentzat

Guztira 10 ikastaro daude aukeran ikasturte honetarako. Antzerkia, argazkigintza, dantza garaikidea, egurra lantzea, ehoziri lana eta patchworka, pintura/marrazketa eta zeramika dira helduei eskainitakoak. Gaztetxoentz, berriaz, baleta eta eskulan tailerra dituzte eskura.



Antzerki tailerrekoek iaz eskaini zuten antzeztanaren une batean. E. EZBIZA

Baletaren kasuan aukera eta ordutegi zabalak eskaintzen du, adinaren eta modalitatearen arabera banatuta. Izan ere, 4 urtekoetatik 13 urte bitartekoetara urtez urte daude banatuta ikastaroak, eta horretaz gain, aurreratua eta puntak ikastaroa ere badaude.

Argazkigintzan erretratuak

Argazkigintza tailerren helburua erretratuak egiten ikastea izango da. Horretarako, historian zehar ateratako erretratuak aztertuko dituzte, argi natural eta artifizialarekin alderatuko dute, eta ordainagailu bidez, ateratako argazkiak hobetzen ikasiko dute. Argazkiak egin ohi dituztenei eta kamararen funtzionamendua zertxobait ezagutzen dutenei dago zuzendua tailerra. Guztira 3 ordu-

ko 12 saio egingo dituzte, eta horietatik 3 kanpoaldean izango dira. Ikastaroa Iñigo Royo argazkilariaik emango du.

Antzerki tailerra

Mundu hori atsegin duen orori dago irekia antzerki tailerra, eta bertan izena emateko baldintza bakarra 15 urte beteta izatea da. «Gure egunerokotasunaren parentesi bat izango da antzerki tailerra, antzeztzen ikasten dugu, deskonektatzen dugu eta ederki pasatzen dugu», azaltzen du Elena Aranbarri tailerreko arduradunak. Ikastaroaren lehen zatian antzerkigintza jorratuko dute, eta bigarren zatian, ohi bezala, antzerki obra bat prestatuko dute denentzatean, ondoren jendaurrean aurkeztuko.

» DATUAK

Ikastaroak

- **Antzerkia.** Astelehena/asteazkena, 19:30-21:30. 154 euro (Tolosaldekoek) / 231 euro (ez Tolosaldekoek).
- **Argazkigintza.** Asteartea, 18:30-21:30. 157,50 / 236,25 euro.
- **Baleta.** Adinaren araberaiko ordutegia eta tarifak.
- **Dantza garaikidea.** Astelehena/asteazkena, 20:15-21:45. 173/259 euro.
- **Egurra lantzea.** Asteartea/osteguna; 15:00-17:00. 173/259 euro.
- **Ehaziri lana eta patchworka.** Astelehena, 15:00-19:00. 173/259 euro.

- **Pintura/marrazketa.** Ordutegi ugari aukeran. 173/259 euro.
- **Eskulanak (6-10 urte).** Astelehena/asteazkena, 17:30-18:30. 127/190 euro.
- **Eskulanak (10-14 urte).** Asteartea/osteguna, 17:30-18:30.
- **Zeramika.** 3 egun eta ordutegi aukeran. 173/259 euro.

Matrikula

- **Izen-ematea.** lazko ikasleek hilaren 18ra arte, eta berriek hilaren 21etik 25era. Kultur Etxean, goizez nahiz arratsaldean.
- **Informazioa.** 943 67 03 83 edo www.tolosakoudala.net.

Bi gizon atxilotu dituzte kobrea lapurtzeagatik

ERREDAKZIOA

Bi gizon atxilotu zituen herenegun gauean Ertzaintzak Tolosako enpresa batean kobrea lapurtzen saiatzeagatik. Lapurretara gauerdia izateko minutu gutxi falta zirela egin zuten, Iruña etorbidean kokatutako lantegi batean.

Enpresako zaindaria lapurretaz ohartu zen eta Ertzaintza ohartarazi zuen. Hain zuzen, agentei jakinarazi zien furgoneta bateko bi-

daiariek kablea lapurtu eta Lizartarako noranzkoan alde egin zutela. Minutu batzuk geroago, ertzainek furgoneta bat aurkitu zuten Lizartzako industrialde batean. Barruan bi pertsona zuden eta, agenteek baieztatu zuten, ibilgailuan kable kantitate handia zegoen. Gertakariaren aurrean, bi pertsona horiek atxilotu zituzten, ondarearen kontrako delitua bat egotzita.

Alzheimerrari buruzko hitzaldia, bihar

ERREDAKZIOA

Datorren astelehenean, hilaren 21ean, Alzheimerraren Nazioarteko Eguna izango da, eta hori dela eta, AFAGik (Gipuzkoako Alzheimerra dutenen familien elkarte) hitzaldia antolatu du Tolosan.

Kultur Etxean izango da bihar, 18:30ean, eta *Alzheimer gaisotasuna. Gertuko errealitatea* izango da

izenburua. Hizlari bezala, Koldo Aulestia (AFAGiren zuzendaria) eta Josune Mendez (AFAGiren giza kudeaketaren zuzendaria) ariko dira.

Erakundetik adierazi dutenez, hitzaldia garrantzitsua eta lagungarri izango da, bai Alzheimerra duten gaisoentzat, bai eta euren sendiko kideentzat ere.

Tolosaldea ezagutzeko bide ugari aukeran

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Turismo Bulegoak eskaintza zabaldu du ikasturte berriari begira. Batetik, bisita gidatuak eskaintzen ditu, bestetik, Goierri-Tolosaldea ibilbide gastronomikoa, eta, horrez gain, ohiko informazioa eta laguntza ematen die bulegotik pasatzen direnei.

Bisita gidatari dagokionez ondorengoak eskaintzen ditu eskualdean: Tolosako Alde Zahararen ingurukoa (1,5 euro/pertsonako); Gorrotxategi Konfiteria Museora bisita gidatua eta txokolate kikatora baten dastaketa (1,5 euro/pertsonako); eta Euskal Baserriaren Museo Etnografikora bisita, Larrau-

len (1,5 euro/pertsonako). Euskaraz, gaztelaraz, ingelesez eta frantsesez egiten dituzte, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:00etara.

Eskaintzetan berriena Ibilbide Gastronomikoa Tolosaldea eta Goierri barrera da. Asteazkenean Ordizian eta larunbatetan Tolosako museoetara nahiz herrietara bisita eskaintzen dute, herri horietako adierazgarria ikusteko aukera dagoelarik, eta nahi izanez gero bertako produktuak dastatzeko aukera ere badago. Egun osoko bisita honen kostua eguna eta zerbitzuen arabera izango da.

H Hilberria

IÑAKI LOIOLA ANZUOLA

'Loiola txikiya'

Zarautzen hil zaigu 2009ko irailaren 13an, 77 urte dituelarik, bizitzari azken tantoak bikain sartu ondoren.

Bi paretak eta dejada, zu bezelakorik ez da.

Bote-pronto nahiz txapa-gaina, zeruko txapela ere zuretzat, alajaina!



Jokoa ez da amaitu. Bete ondoan izan gaituzunok segiko dugu ezker-eskubi, gorri nahiz urdin, zurekin elkartu artean. Segi lasai! Loiola Arizti familiak bihotzez eskertzen ditu alde guztietatik jasotzen animo eta elkartasun adierazpenak. Nahi duzuenaroko, hor gaituzue. Mila esker, esker mila.

ZARAUTZ
2009ko
irailaren 15a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAZ • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Urteko estropada garrantzitsuenean, Kontxako Bandera, eskualdeko ordezkariak ere ez ziren faltatu; emakumezkoetan TAKekoek Tolosa-Getaria traineruarekin hirugarren postua lortu zuten; eta postu berdinean ere San Pedro trainerua sailkatu zen, tartean Villabonako hiru arraunlari zituela; guztiak ere «gustura» azaldu dira Donostiako badian eginiko lanarekin.

Kontxako Bandera

Tolosa-Getaria taldeko Amaia Doyaguek balantze baikorra egin du lortutako hirugarren postuari buruz.

IMANOL GARCIA

Emozio handikoa izan zen emakumezkoen Kontxako Bandera, ikuskizuna emanez. Tolosa-Getaria taldeak hirugarren postua lortu zuen, Astilleroren bigarren postutik 30 ehuneko eta galiziarren lehen postutik hiru segundora. Tolosan bizi den Amaya Doyague arrasatearrak parte hartu zuen Tolosa-Getaria traineruan eta lortutako emaitzarekin «oso gustura» daudela azaldu du. «Oso txukun atera ginen badiatik kanpora eta baita barrurako bidera ere. Oso gustura gaude txukun egin genuelako eta irabazteko borrokan izan ginelako».

Lehenengo luzean, itsaso aldera joaterakoan aurretik izan ziren Tolosa-Getariakoak. «Astillero eta Galizia segundo bat edo bitara atzetik zihazozen eta behin zianboga egin ondoren atzetik atera ginen», azaltzen du Doyaguek. Beste bieci eusten saiatu ziren eta baita lortu ere. «Estropada guztian paretsu ibili ginen hiru traineruak eta azkenean galiziarrek eraman zuten bandera».

«Oso gustura gaude txukun aritu eta irabazteko borrokan egon ginelako»

Arraunlariak azaltzen duenez, «denboraldian zehar ikusi da maila altua dagoela. Aurreko urteko denborekin alderatuta, ikusi da ia minutua hobetu dela aurtin eta egia esan plazerra da horrela arraun egitea. Ikusi da beste ontziak lehiakorrek direla eta azkenean hoberenak irabazi du bandera».

Giro «zoragarria»

Kontxako estropadan giroa «zoragarria» dela dio Doyaguek. «Egia esan ikaragarria dabilten den jendea, ematen dizun babesa izugarria da. Beste estropada askotan egon gara, baina Kontxakoa bezelakoa ez dago». Bigarren urtea da emakumezkoen Kontxako estropada egiten dela. Iazkoan Tolosaldeko Arraun Klubak (TAK) berak bakarrik parte hartu zuen, Getariarekin elkartu gabe. Orduan sailkapen estropadan bosgarren egin zuten eta, beraz, ez zen iganderako sailkatu.

Emakumezkoen estropada indarra hartzen ari da. «Larunbateko sailkapen estropadan jende pila



Tolosa-Getaria trainerua Donostiako portuan. HITZA

bat izan zen eta jende hori guztia neskentzat bakarrik izan zen», azaldu du arraunlariak. «Ez zen izan igandean bezala, batez ere gizonetzkoentzat bildu zela jendea». Doyaguek ikusten du «indarra hartzen ari dela» emakumezkoen arraunak eta «maila hobetzen doala. Azkenean gure txokoa egiten gabilta, garrantzitsua dela. Heda-

bideek ere asko laguntzen digute horretan». Antolakuntzaren alde-rik ere ikusten dute babes hori emakumezkoen arrauna idartzeko. «Ikusita gai garena lehiatzeko eta ikuskizuna emateko, urterik urtera indartzen joango da emakumezkoen arraunketa».

Aurtengo denboraldia bukatu dute TAKeko emakumezkoek eta

datorrenari begira batei eutsiko diote berriz. Estropadei begira ez dute finkatu datorren denboraldian Getariarekin batera lehiatuko diren. Orain atsedena hartuko dute hilabetez edo eta gero hasiko dira. «Tolosan zentratuko gara», dio Doyaguek. Igandean, behintzat, «oso ondo» ospatu zuten denboraldi amaiera.

«Hirugarren geratzea postu oso ona da»

Villabona San Pedrok, hiru billabonatarrekin, lehen jardunaldiko postua defendatu ahal izan zuen Kontxako Banderan.

I. GARCIA

Ez zen posible izan. Saiatu ziren sanpedrotarrak, tartean traineruko hiru billabonatarrek, baina Kaikukoak eta Castrokoak gehiago izan ziren eta azkenean hirugarren postuan amaitu zuten Kontxako Bandera. Lehen jardunaldian lortutako postua mantendu ahal izan zuten, Pedreña dezente gerturatu bazen ere. Ander Ansa arraunlari billabonatarrek estropada «orokorrean ondo» joan zela azaldu du. «Aurrekoen aurka ezer handirik egiterik ez zegoen, baina saiatu ginen. Hirugarren geratzea postu oso ona da. Gainera aurreneko gipuzkoarrak izan ginen eta horrek ere izena ematen dio». Ansa-ekin batera Joseba Larrarte eta Gari Lopetegui billabonatarrek izan ziren traineruan.

Ziabogara Kaikukoak segundo batzuko abantailarekin iritsi ziren eta hor Castro eta San Pedronen esperantzak zapuztu ziren. Ansak ez

du uste horrek psikologikoki «asko eragin» zienik San Pedroko-ek: «Ezer galtzekorik ez genuela joan ginen eta denak emanda atera ginen. Ikusi genuen aurretik zihoztela, baina eman beharra zegoen, atzetik Hondarribi zetorren eta». Ansak dioenez, «Kaiku eta Castro aurretik joateak ez zaitu ezustean harrapatzen». Kantsolazio txandan Pedreña egindako estropada ikusita, hirugarren postua mantendu behar zuten eta pare bat segundogatik lortu ere.

Estropadaren ondoren sanpedrotarrek herrian harrera beroa izan zuten. «Banderak irabazi ditugunean ACT Ligan ere harrera ona egiten digute eta pixka bat ere emozionatu egiten gara», dio arraunlariak. «Herria ikusten duzu nola animatzen dizun eta hor konturatzen zara zer garrantzia duen». San Pedron arraun zaletasuna berpiztearen erru handia du egungo traineruak. «Azkenaldian jendea portatzen ari da. Baina hori betikoa da, ondo dabilenean orduan jende gehiago agertzen da». Donostiako giroa ere «emozio handikoa» dela dio: «Portura sartzen zarenean eta arrapalara joan, ingurua jendez ikusten duzunean asko emozionatzen zara. Beldurra



San Pedroko trainerua, estropada bukatuta, Donostiako portuko arrapalaren ondoan. RAUL PEREZ/IRUTXULOKO HITZA

eta dena ematen du hainbeste jende zuri animatzen ikusteak, ezagutzen ez duzun jendea zure izena esaten... Oso giro polita izaten da».

Beste bi estropada falta zaizkie denboraldia bukatzeko: Bermeo eta Portugalete. ACT Ligako bigarren postua mantentzea eta ahal dela banderaren bat irabaztea izango da helburua.

@ Argazki Lehiaketa. Aurtengo udako oporren inguruko Argazki Lehiaketa antolatuta du HITZAK eta dagoeneko jaso dira hainbat argazki. Argazki horiek ikusteko webgunean *Irudietan* atalean sartu behar da eta han *X. Hitzza Argazki Lehiaketa* bilduma. Bidali zuk ere zure argazkia.

www.tolosaldeko-hitza.info

Iragarki laburrak

LANA

■ **Banatzaila.** Banatzaile gidaria behar dugu. Tolosaldekoa. Interesatuak deitu 648 00 47 98 telefono zenbakira.



Herenegun izan zen Kaleberako eta Zizurkilgo festetako azken eguna; lehendabizikoan dantzari txikien emanaldia izan zen goizean; bestean berriz, sardina erreak jateko aukera izan zen. I. LLAHIDALGA

Kalebera eta Elbarrenako jaiei... datorren urtera arte!

Aisia » Bukatu dira Alegiko eta Zizurkilgo festak; bietan ere, giro ona eta herritarren parte-hartzea bultzatzen zuten ekitaldiak izan dira nagusi.

ESTI ZEIZA

Agur esan diete zizurkildarrek eta alegiarrek festei. Herenegun amaitu baitziren Elbarrena auzoko nahiz Kaleberako jaiek. Bietan ere, herri giroa izan da nagusi, bertakoek antolatutako gauzetan parte hartu dutelarik.

Joan den asteazkenean murgildu zen Zizurkil jaietan. Lehendabiziko egunek, ikasturte hasierarekin bat egin zuten, eta honek eragina izan zuen. Ohikoa baino jende gutxiago ibili baitzen. Duela urte batzuetatik, herritarren parte-hartzea bultzatzeko asmoz, apustu berezi bat egin zuen festa batzordeak. Hala, bertako jendea inguratzeke ekitaldi ezberdinak antolatzen hasi zen. Horieta bat izan zen arratsaldekoa. 60 zizur-

kildar inguruk Lantzeko zortzikoa dantzatu baitzuten. Horretarako, duela aste batzuk hasi ziren entseguekin, eta igandean ikusi zen fruitua. Jendea gustura egon zen zuten, eta dantzariak ere kontent agertu ziren erantzunarekin. Antolatzailen esanetan, «ekimen honek, adin ezberdinetako herritarrek elkar ezagutzeko balio izan zuen, eta harremanak estutzeko».

Elbarrenako jaietako ekitaldi jendetsuenak, osteguneko Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia eta ostiraleko kontzertuetakoa izan ziren. Ze esatek, Esne Beltza eta La Pegatina taldekoek umorea eta dantzarako gogoa zabaldu zuten bertaratutako zirenen artean. Tartean, herriko presoak, eta baita,

duela gutxi hil den Remi Aiestaran billabonatarra gogora ekarriz ekitaldi berezi bat egin zuten. Txalaparta doinuak eta bertsoak entzuz ahal izan ziren. Honetaz gain, agurra ere dantzatu zieten presoek.

Ekitaldietako asko, urtero errepikatzen dira Zizurkilgo jaietan, eta gero eta oinarri sendoagoa ari dira hartzen. Horieta bat da karrakea. Urteko urtera, lotsak alde batera utzi, eta gero eta jende gehiago animatzen da eszenatoki gaineraigo eta mikrofonoa hartzera. Bestalde, estreinakoz, melokotoiaren jaietsiera eta igoera izan dira aurtur, baita mus txapelketa ere. Hauk, jendearen ikusmina piztu dute, eta herritar ugari hurbildu ziren ikustera.

Kaleberan, festa laburrak baina indartsuak

Ostiral iluntzean ekin zieten jaiei Alegiko auzoan, eta herenegun gauean amaitu. Hemen ere, gusturageratu dira antolatzailak jende-

aren erantzunarekin. Jendea gustura dagoela ikusita, urtero gauza berdintsuak antolatzen dituztela diote, eta horrela jarraitzea espero dute.

Dantzari txikien saioa izan zen herenegun goizean, eta ondoren, txakolina eta sardin erreak dastatzeko aukera izan zen. Jendeak, bi eurotan erosi zezakeen edalontzia eta ondoren, borondatearen truke jan eta edan. 200 lagun inguru elkartu ziren orduan jan eta edanaren ingurura. Hau izan da, aurtengo festetako ekitaldi jendetsuena.

Iluntzean, zahagi-ardoa izan zen, eta aurreko urteetan baino jende gehiago bertaratutako hona. Jaiei, mus txapelketarekin eman zioten amaiera. Hemen, zortzi bikote hartu zuten parte.

Bertakoei zuzendutako ekitaldiak izan dira nagusi Kaleberan. Larunbatean, kirol ekitaldiak eta bertsoak izan ziren protagonista. Goizean, herri krosa jokatu zen. Hauarena alde batetik, eta heldue-

na bestetik. Bigarren maila honetan, 12 lagunek hartu zuten parte, eta Aitor Altuna izan zen garaile. Arratsaldean berriz, pala txapelketako kanporaketak jokatu ziren lehendabizi, eta bertso-palako desafioa ondoren. Hemen, Beñat Garmendia eta Iker Iriarte, Imanol Irazustabarrena botilero zutela aritu ziren, Unai Muñoa eta Mikel Artolaren aurka. Hauk Jokin Uranga bertsoalaria izan zuten aholkulari. Jende ugari hurbildu zen norgehiagoka ikustera, eta azkenik, lehendabiziko bikotea izan zen desafioaren garaile.

Gauean, Aitzol Barandiaran, Jokin Uranga, Mikel Artola eta Unai Muñoa bertsoariak igo ziren oholtza gainera. Beraiekin batera, eszenatokia izan zen Iker Iriarte, gaiak jartzen. Toki txikian, jende ugari bildu zen, eta saio polita egin zuten. Barre ugari egin zuen jendeak, baita, taula gainean zudenentzuek adarra jo ere. Denek jaso zituzten entzuleen txaloa, baita, arraroa bada ere, gai-jartzaileak. Izan ere, bertso onak ez ezik, gai onak ere txalotu zituzten alegiarrek.

Larunbateko kanporaketen ostean igandean jokatu zen pala txapelketako finala. Hemen, Ugaitz Renobales eta Beñat Garmendia lehiatu ziren, lehendabizikoa nagusitu zelarik.



bidali opor
hauetako
argazkiak!



sari
mundialak



NORA BIDALI?

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora edo
HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara

Aurrera-Saiatz eta Irurtzun igandeko finalaren zain

Amezketak » Asteburuan jokatuako partidetan eskualdeko Lizartza eta Amezketak ez ziren finalerako sailkatu.

ERREDAKZIOA

Amezketako XX. Joxean Tolosa Txapelketa azken txanpara iristen ari da eta jada igandeko honetan jokatu dira finalak. Euskal Herriko 26 Pilota Eskolak parte hartu dute bertan asteburuz asteburu eta finalera, Aurrera-Saiatz eta Irurtzun iritsi dira.

Igandean finala

Ostiral gauan izan ziren Aurrera-Saiatz eta Lizartzarren arteko finalerdiak eta Aurrera-Saiatzekoek bi partida irabaziz finalera pasatzeko txartela eskuratu zuten.

Amezketako frontoian, partida bikaina ikusteko aukera izan zen. Kadeteen mailan, Arratibelek 17 eta Jakak 18 tanto bukatu zuten. Jakak bere maila eman zuen eta Arratibelek oso partida bikaina egin zuen 17 - 16 aurretik jartzea lortu zuen. Gazteetan, Apezteak 18 eta Olaetxeak 12 egin zuten. Nagusietan, aurtengo tantorik zoragarriena ikusteko aukera izan zen 11-11 bitartean, Onsalo eta Elurberen artekoan.

Larunbatean, Irurtzun eta Amezketarren txanda izan zen. Etxekoek ezin izan zuten partidarik irabazi, Arzelus eta Leunda eskuko arazoekin baitzeuden. Beraien esperantza Gallurraldere-



Pasa den urteko finaleko argazkian, Onsalo, ANDER OTEZABAL

gan jarria zuten baina ahoko infekzio batek jota ateratu behar izan zuen kantzara. Kadeteetan, Beraza 18 - Gallurralde 14, Gazteetan, Zabaleta 18 - Arzelus 1 eta Nagusietan, Armendariz 18 - Legarreta 7. Ondorioz, Irurtzunek lortu zituen hiru puntuak eta baita igandean, arratsaldeko 17:00etan jokatu den finalerako txartela ere.

Pilota eskolen lana baloratzen XX. txapelketa honetan antolatuak aldaketak egin dituzte eta aurtengoan pilota eskolen lana ba-

loratu nahi izan dute. Baldintza nagusia pilota eskola izatea, eta bertan kadete, gazte eta nagusi mailako pilotariak izatea izan da. Ondorioz, zenbait pilota eskolek, (Leitzakoak esaterako) aurtengoa ezin izan dute parte hartu.

Talde lana izan da eta honela, baliteke maila bakoitzeko pilotaririk hoberena ez sailkatu izana finalera baina bai pilota eskola.

Gaineratzen, giro polita izan da partidetan. Igandea ere seguru, animo, oihu eta jende faltarik ez da izango Amezketan.



Donezteben Eneko Garmendia lokotx biltzen. HITZA

Eskualdekoak Zazpi Herrialdeetakoan

Herri kirolak » Nafarroa txapelkun eta Gipuzkoa bigarren izan ziren Zazpi Herrialdeen arteko Herri Kirol Txapelketan.

ERREDAKZIOA

Larunbatean Zazpi Herrialdeen arteko Herri Kirol Txapelketa Donezteben jokatu zen eta seigarren urtez jarraian, Nafarroa Garaia irabazi zuen.

Hamar kirol proba

Hamar kirol proba egin behar izaten dituzte guztira Zazpi Herrialdeetako txapelketan. Lokotxak biltzen, txingak, zaku lasterketa, lastoa altxatzea, orga-jokoa, harrijasotzen, ingude-alkatzen, sokatiran, trontzan eta aizkoran.

Behin proba guztiak egin ostean, Nafarrek urteroko maila era-

kutsi zuten eta garaipenarekin itzuli ziren etxera. Bertan, txingetan Migel Angel Sukuntza leitzarrazutenkide eta Nafarroako Txapelkun bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten. Bigarren Gipuzkoa sailkatu zen eta jarraian, hurrenez hurren, Bizkaia, Lapurdi, Araba, Nafarroa Behera eta Zuberoa izan ziren. Gipuzkoarek, nafarrek bezala, launa proba irabazi zituzten eta Lapurdi eta Bizkaia bana.

Garmendia lokotxetan irabazle

Gipuzkoarren taldean, lokotxak biltzen Eneko Garmendia baliarraindara izan zen. Gipuzkoako txapelkunak, Euskal Herriko Txapelketan bigarren egin zuen. Larunbatean ordea, arantza kentzea lortu zuen txapelkunari irabaziz. Bere lana, 6 minutu eta 19 segundotan bukatzea lortu zuen gipuzkoarrentzat puntua lortuz.

Olaederrako ikastaroetan aukera zabala dago

Villabona » Ikasturte berria irailaren 28an hasiko da Olaederra kiroldegian. Oraindik izena emateko aukera dago.

ERREDAKZIOA

Villabonako Olaederra kiroldegia, haur eta helduentzat eskaintza zabala du. Batzuk, urte osokoak dira eta besteak, hiruhilabetekoak.

Haurren eskaintza

Urte osokoak diren artean, judo, gimnastika erritmikoa, igeriketa eskola eta igeriketa kanpua daude.

Judo, joku eta ariketetan oinarritutako kirola, astearte eta ostegunetan izango da 17:15etik 18:15era baina hemen izena eman nahi duena 2001 eta 2003 urte artean jaio izan behar du. Aldiz,

18:15etik 19:15erako taldean 1996-2000 urteetan jaiotakoak izango dira.

Gimnastika erritmikoa, astelehen eta asteazkenetan izango da 18:00etatik 19:30era.

Igeriketa eskolek, ordutegi ezberdinak izango dituzte. Talde bat astelehen eta asteazkenetan eta besteak, astearte eta ostegunetan izango da. Igeriketa kanpua berriaz, 19:15ean hasi eta 20:15era izango da. Igeriketako bi ikastaro hauetan izena eman ahal izateko, oinarrizko maila eduki beharko da, monitoreek baloratuko dute.

Hiruhilabeteko ikastaroetan igeriketa astelehen eta asteazken eta astearte eta ostegunetan izango da. Haurtxoen igeriketa, larunbata eta igandean 10:00etatik 12:00 bitartean izango da, sei hilabetetatik hasi eta hiru urte bitartekoentzat. Cyclingsaioa 18:30etik 19:15era astertate eta ostegunetan eta haurre-

kin bukatzeko Funky Hip-Hop ikastaroa dago. Astelehen eta asteazkenetan 17:00etatik 18:00etara bitarte.

Helduen eskaintza

Urte osokoan artean aquagyma 08:00etatik 09:00etara astelehen, asteazken eta ostiralean edota 19:30etik 20:30era astelehen eta asteazkenetan. Mantenu gimnastika, astearte, ostegun eta ostiralean izango da 09:00etatik 10:00etara. Prestakuntza fisiko inertsiboa astelehen eta asteazkenetan izango da 19:30ean hasi eta 21:00etara. Aerobikean bi txanda: 19:30-20:30 eta 20:30-21:30, astelehen, asteazken eta ostiralean. Eta azkenik, yoga astelehen eta asteazkenetan, 09:30-11:00, 17:30-19:00 eta 19:00-20:30.

Hiru hilabeteko ikastaroetan ere aukera zabala dago. Astearte eta ostegunetan, 20:30etik

21:30era GAP izango da. Igeriketa goiza eta arratsaldetan izango da astelehen eta asteazkenetan edota astearte eta ostegunetan. Cyclingaren kasuan, aukera handia dago: astelehen, asteazken eta ostiralean 13:15-14:00, 19:15-20:00, 20:00-20:45 eta 20:45-21:30. Astearte eta ostegunetan 09:15-10:00, 10:00-10:45, 13:45-14:30, 19:15-20:00, 20:00-20:45 eta 20:45-21:30. Pilates, astearte eta ostegu-

netan 08:00-09:00, 09:00-10:00, 19:30-20:30, 20:30-21:30. Astelehen eta asteazkenetan aldiz, 20:30etik 21:30era izango da. Patinetan ikasteko aukera, astearte eta ostegunetan izango da 20:30etik 21:30era. Azkenik, Bosu, astearte eta ostegunetan 19:30-20:30era izango da.

Bazkide ez direnek, atzotik izena emateko aukera dute Olaederra kiroldegian.

» IKASTAROAK

Haurrak

■ **Urteko ikastaroak.** Judo, gimnastika erritmikoa, igeriketa eskola eta igeriketa kanpua.

■ **Hiruhilabeteko ikastaroak.** Igeriketa, haurtxoen igeriketa, cycling (1993-1996 urteen artean jaiotakoentzat eta funky hip-hop (1992-1999 urteen artean jaiotakoentzat).

■ **Hasteko eguna.** Irailaren 28a, astelehena.

Helduak

■ **Urteko ikastaroak.** Aquagym, mantenu gimnastika, prestakuntza fisiko inertsiboa, aerobik, yoga.

■ **Hiruhilabeteko ikastaroak.** GAP, igeriketa, cycling, pilates, patinak eta bosu.

Aiert Beobidek hartuko du Edu Murumendiarazen lekukoa Alurren

Ibarra » Dantza taldeak aurki hasiko du ikasturte berria dantzan ikasi nahi duen 4 urtetik gorako edonorentzat.

REBEKA CALVO

Ibarrako Alurr dantza taldeak euskal dantzak eta kultura zabaltzen jarraituko du baita aurtengo ikasturtean ere. Izan ere, euren helburua horixe da, «gure kultura zabaltzea», dio taldeko Eli Nosellasek. «Orain arte bezala jarraituko dugu, gure estiloan, baina berrikuntza batzuekin», nabarmendu du. Eskolak berehala hasiko dituzte eta datozen egunetan argituko dituzte ordutegiak.

Berrikuntzetako bat Edu Murumendiaraz dantzariaren irteera da. Aukeran dantza konpainiako dantzariak beste egitasmo batzuk ditu eta ondorioz, bere lekukoa Aiert Beobide gazteak hartuko du. Beobide donostiarrak da, Aukerak partaidea da eta Murumendiaraz baino gazteagoa bada ere eskarmentu handia du euskal dantzen munduan. Txapelketa ugari irabazi ditu, tartean Gipuzkoa Eraiko Aurresku Txapelketetako edizio bat baino gehiago.

Mutil taldea, «behingoz»

Beobidek ez du edonolako zeregin izango, aurtengoan mutilen taldea ere sortu ahal izan baitute, «behingoz», Nosellasek nabarmendu duenez. Donostiarrak irakatsiko die eta 16 urtetik 45 urte bitarteko mutilek osatzen dute taldea. Ostegunetan ariko dira mutilak, 19:00etatik 20:30era. Beobidek, dena den, beste hiru talderen irakasle lanak ere egin beharko ditu. Nosellasek, era berean, dantza taldean gazte asko ari direla nabarmendu du eta horiei guztiei Alurreko ikuskizunetan parte hartzeko aukera ere eman nahi diete.

Horrexegatik jada eginda dituzten hiru ikuskizunetan zenbait aldaketa egiteko asmoa dute, hartara «ikuskizuna eskaini dugun herrietan ere berrikuntzak eskaini ahal izateko». Horretarako *Sua*



Geroz eta gehiago dira Alurr dantza taldeak eskaintzen dituzten eskoletan parte hartzen duten gazteak. R. CALVO

ikuskizunetan parte hartu zuen Katixa Perea dantza-garaikideko dantzariak lagunduko die. Ikuskinen berri bat prestatzeko asmoa ere badute, baina hori datozen urteetako erronka izango dela aurreatu du.

Berrikuntzei jarraiki ikasturte honetan hilean bitan, larunbateetako

Ikasturte honetan astearte goizeetan helduentzako eskolak eskainiko dituzte

tan beti ere, fandango eta arin-arin lehiaketetan parte hartu ahal izateko prestakutza eskolak eskainiko dituzte.

Eskolak goizeetan

Era berean, goizeetan ere eskolak izango dituzte. «Orain bi urte izan genituen, baina iaz ez, eta aurtengoz berri ere berreskuratzea pentsatu dugu. Asteartean eskainiko ditugu eta plazako dantzak ikasi ahal izango dituzte, oinarrikoena», argitu du.

Bestalde, Alurr dantza taldearentzat berezibiko garrantzia du herri guztietan dantza taldeak sortzea eta horretan jarraituko dute

lanean baita aurtengo ikasturtean ere: «Gure apustua da, euskal dantzak herri desberdinetara zabaltzea nahi ditugu. Orain arte Anoetan, Zaldibian, Berastegin, Legorretan, Zizurkilan eta Altzon eskaini ditugu. Berrobiko gazteak, adibidez, Ibarrara etorri ohi dira, baina bertan ere taldea sortu nahi dugu eta horretarako gu joan behar gara hara».

Emanaldi ugari

Ikasturtea aurki hasiko dute Alurrrerkoek, baina udaran zehar ere izan dute lana, izan ere herri askotan izan dira emanaldi desberdinak eskaintzen, azkena hilaren

4an Ordizian. «Herri askotan izan gara eta emanaldietako batzuk oso bereziak izan dira, Segurakoa, esate baterako. *Sua* ikuskizuna Eneko Aritzaren Lagunek filmatutako izen bereko filman oinarritzen da eta filma Seguran ere filmatu zuten. Herrian eskainitako *Suaren* emanaldia oso berezia izan zen. Jendearan gertutasuna oso garrantzitsua eta eskertzekoa da», argitu du.

Egiteko asko dituzte, baina gustura egiten dute lan. «Egiten duguna ez litzateke posible izango bolutariorik gabe, jende askok egiten du lan musutruk eta hori oso eskertzekoa da», esan du.

Urriaren 11n burutuko duten azokan izena emateko azken eguna

Leaburu-Txarama » I. Artisau, Barazki eta Ganadu Azokan aritzeko azken eguna da gaurkoa.

ERREDAKZIOA

Leaburu-Txaramako Larte Azpi ekintza elkarteak Artisau, Barazki eta Ganadu Azoka antolatuta du urriaren 11rako.

Lehen aldia da era honetako azoka egiten dutela herrian eta euren nahia herritar orearen parte hartzea ziurtatzea dela diote, horrexegatik egin dituzte bilerak azken asteartean herriko Gazte Gelan.

Bertan parte hartu nahi duenak gaur du izena emateko azken eguna eta horretarako bi telefono zenbaki eskaini dituzte: 616 849 722 (Ion) edo 696 014 786 (Eli).

Gonbite zabala azoka antolatu ahal izateko

Ekintza elkarteek kideek esandakoaren arabera, parte-hartzea herritar guztiei zabaltzea nahi diete «barazkiak izan, ganadua izan, artisau tresna zaharrak eduki edota artisautzarekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa duen edozein lan burutuz».

Ekintza elkarteek kideek, dena den, azoka antolatu ahal izateko herritar askorekin hitz egin dute jada, baina aipatu bezala herritar guztiei zabaltzea nahi diete I. Artisau, Barazki eta Ganadu Azokan parte hartzeko deia.

Herriko baserriarren produktuak dastatzeko aukera, berriz ere

Ibarra » Hilaren 27an izango da herriko Hauspoa Kultur Elkarteak urtero antolatzen duen azoka berezia.

ERREDAKZIOA

Urteroko hitzordua iristear da, Ibarrako baserriarren produktuak dastatzeko eta erosteko eguna, hain justu, eta jada azoka bereziko Ibarrako Piparraren Euskal Herriko V. Lehiaketa Gastronómicoan izena emateko epea bukatzen ari dela gogoratu dute Hauspoa Kultur Elkarteak kideek.

Ibarra Azoka eta Piparra azoka berezia hilaren 27an izango da, baina hilaren 22rako jakin behar dituzte antolatzaileek lehiaketan parte hartuko dutenen izen abize-

ren horretarako 943 67 03 99 telefono zenbakian edota *ibarrakult@euskalnet.net* helbide elektronikoa bi sukaldarien izen-abizenak, ordezkatzeko duten elkartearen izena-baldineta elkarte batekoak badira- eta telefono zenbakia eman beharko dituzte.

Guztira 22 parte hartzailek hartu dezakete parte lehiaketan eta jada Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat sukaldariek eman dute izena. Era berean, azoka egunean Eskualdeko XII. Ezti Lehiaketa ere egingo dute, bertaraten direnek ezti dastatzeko aukera ere izango dutelarik.

Herriko baserriarren ganadu eta produktuak

Bi lehiaketa hauetaz gain, *Ibarra Azoka eta Piparra* azokara gerturatzeko direnek Ibarrako baserri-

arren ganadu eta produktuak ikusi ahal izango dituzte.

Eraberean, herriko artisauen lanak ere ikusi eta erosi ahal izango dira. Ibarratik Misio Taldeak ere urtero jartzen dituen bi postuak ere bisitatu ahal izango dira. Postuetako batean misio taldeak lan egiten dueneko herrialde desberdinetako artisautza produktuak salduko dituzte eta bestean, aldis, Ibarrako baserriarren pintxoak eta edariak salduko dituzte. Herriko tabernari eta dendarien produktuekin osatutako saski bat ere zozketatuko dute.

Postuetan lan egiteko ordea, laguntza behar dute eta hiru bide eskaini dituzte horretarako: 676 623 990 (Xabier) eta 650 416 949 (Marían) telefonoetara deitzea edota *ibarratik@hotmail.com* helbidera idaztea.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Leitzako V. Txapelketaren finalak herenegun jokatu ziren Amazabal pilotalekuan. Amaieran bost bikotek jantzi zituzten txapelak. HITZA

Leitzako V. Txapelketan maila eta mota guztietako finalak ikusi dira

Pilota » laz baino ikusle gehiago joan da aurtengoan Amazabal pilotalekura antolatzaileen esanetan.

ASIER IMAZ

Amaitu da Leitzako V. Txapelketa. Bost mailatako finalak herenegun jokatu zituzten pilotariak eta Amazabal pilotalekuan jende ugari elkartu zen. Alebinen partidarekin hasi zen jaialdia 10:00etan, azken finala berriz Nagusiek jokatu zuten.

Maila bakoitzeko emaitzak

Leitzako V. Txapelketaren lehen finala gaztetxoek jokatu zuten, hau da, alebinek. Alde batetik Barriola-Bakaikoa bikotea sailkatu zen azken partidarako, bestetik Egiguren-Petitek osatutakoa. Bigarren hauek 18-10 galdu zuten norgehiagoka.

Bigarren lehia, infantilena, benetan borrokatua izan zen. Azkenean tanto bakarrek aldeaz Agirre-Irurretageonak txapela jantzi zuten. Telletxea-Irribarria 17an gelditu ziren.

Hirugarren partida nahiko erraz irabazi zuten Xabier Jaunarenak eta Jakak. Leitzarrak eta lizartzarrak bikote sendoa osatzen dute eta Zestau-Beraza 22-7 garaitu zituzten, kadete mailako lehen postualortuz.

Ondoren juvenilak irten ziren Amazabalgo kantxara. Ansotegi-Iturriagak 22 eta 10 gauditu zituzten Dorronsoro eta Pazos.

Aurtengo txapelketako azken partida nagusiek jokatu zuten. Txapela Onsalo-Iriartek irabazi zuten Idoate-Uzkudunen aurka. Aresoarrak eta leitzarrak 22-15eko emaitza lortu zuten.

Txapelketako antolatzaileak, «oso gustura»

Leitzako Txapelketa Aurrera Pilota Eskolak antolatu ohi du. Aurtengo edizioarekin «gustura» gelditu dira antolatzaileak. Pakito Sagastibeltzak eginiko hobekuntzak eta jendearen erantzuna gorai patu nahi izan ditu: «Balantze oso ona egiten dugu. Iazko txapelketan hobe zeko gelditu ziren hainbat gauza txiki konpondu ditugu eta dena oso ongi joan da aurretik. Jendearen aldetik berriz, lehenengo urtean baino erantzun hobea eduki dugu. Ikusle gutxi izango ote genuen beldur ginen baina alderantziz suertatu da: iaz baino jende gehiago joan da pilotalekura eta oso gustura gelditu dira ikusitakoarekin. Parte-hartzea bikaina izan da», zehaztu du.

Aurrerako kideak, Pakito Sagastibeltzak, herenegun jokatu ziren finalak honela aztertu ditu: «Txikien eta juvenilen partidak ez ziren espero bezalakoak izan. Borroka gehiago egongo zela uste genuen baina eginahalak egin zituzten eta ezin ezer esan».

Kadeteetan ere partida «oso polita» espero zuten, borroka handiarekin, baina Xabier Jaunarena-Jaka pilotariak erraz irabazi zuten. «Aurkarietako bat, Beraza, eskuko minarekin etorri zen, aurreko egunean Amezketan jokatu eta gero. Pilota itzuli bakarrik egiten zuten eta ez zuen eduki aukerarik Jakaren aurka. Lizartzarra izugarriko jokoarekin dago eta ondo egon gabe honi aurre egitea oso zaila da», azaldu du Sagastibeltzak.

Nagusien finalean Mikel Iriartek jokatu zuen partida aipatu du Sagastibeltzak. «Atzetik bikain ari zuten tantoaren pisua eman eta Onsolori aukerako pilotak utzia. Aresoarra ere tantoa amaitzen

ongi ibili zen eta 22-15eko emaitza txapela irabazi zuten».

Finalerako partidarik politena infantilena izan zen, Sagastibeltzaren ustez. «Ikaragarriko partida jokatu zuten lau pilotariak, aparta benetan. Hasieran oso berdinduta ibili ziren. Gero ordea, amaieran galtzaile izan zirenak 17-12 jarri zi-

ren aurretik. Inork espero ez zuten ordea, Agirre-Irurretageonak berdintzea lortu zuten lehenik eta gero azken tantoa egitea», azaldu du pilotazaleak. «Baina inori ezer esaterik ez dago, laurek izugarri jokatu baitzuten. Zutik jartzeko moduko partida izan zen infantilena».



Nagusien mailan Onsalo-Iriartek irabazi zuten finala. HITZA

Narrazio-ipuinen edo bertso paperen lehiaketan parte hartzeko aukera

Leitza » Lanak urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira eta sariak azaroan banatuko dituzte.

A. IMAZ

Alke-Leitzako Kultur Taldeak, Euskara Zerbitzuaren eta Herriko Liburutegiaren laguntzarekin, IV. Literatur Lehiaketa antolatu du. Parte-hartzaileek «idazteko zale-tasuna duten 16 urtez gorako herriarrik» izan behar dute. Lanak urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira, Astiz edo Maimur liburu-dendetan.

Narrazio-ipuina edo bertsoak

Lehiaketara bi lan mota aurkeztu ahal izango dira: Narrazio-ipuina ala bertso idatziak.

Sariak azaroan banatuko dituzte eta parte-hartzaile guztiak izanen dute sariren bat. Sail bakoitzeko irabazleak berriz, 150 euro etabi laguntzako otordua jasoko ditu.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldeko bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurrarrendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Izaskun.** Izaskun izena dutenen festa Izaskunen hilaren 20ean: 12:00etan toka, jarraian meza, bazkaria Izaskun jatetxean eta musika Iñigo Perurenarekin. Izen-ematea, 943 675927 (goizez) telefonoz zerbakiari 17a bitarte.

■ **Ibarra.** Sendi Ekintza elkarteak ezohizko batzar orokorra egingo du irailaren 18an (ostirala). Lehen deialdia 19:30ean izango da, eta bigarrena 20:30ean, Sendi Ekintza elkartearen egoitzan (sagardotegian), Ibarra plaza. Gaiak hauek izango dira: Estatutuen berrieta eta bozketa, eta Zuzendari-tza Batzordearen aurkezpena eta bozketa.

■ **Tolosa.** Bisita gidatuak Topic-en (Euskal Herria plaza) hilaren 19ko eta 26ko eta urriaren 3ko eta 10eko asteburuetan, 12:00etatik 18:00etara. Izen-ematea, TEEn (943 650414 telefonoan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara) edo to-pic@cittolosa.com.

Erakusketak

■ **Ibarra.** Gerrako umei buruzko erakusketa Benito Izagirre kultur etxean. Sobiet Batasuna, Erresuma Batua, Frantzia, Mexiko eta Belgikan haur euskaldunek bizitako bizipenak jaso dira.

Kirola

■ **Bedaio.** Irailaren 27an II. Raid Lasterketa antolatuta dute Bedaion, 25 km-ko ibilbidea 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, 24rako elkartearen (www.bedaio.com).

■ **Villabona.** Hilaren 19 eta 20rako Picos de Europa irteera antolatuta du Aizkardi elkarteak. Izen-ematea, elkartearen (649 717182, ostegunetan 20:00etatik 22:00etara).

Irteerak

■ **Alegia.** Jubilatutako elkarteak hilaren 23rako Arabara antolatuta du irteera, Laudio, Artziniega, Amurrio eta Gasteiz bisitatuz. Izen-ematea, elkartearen 16tik aurrera 11:00etatik 12:00etara 30 eurotan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 676013.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Zarauztik, Fuerteventuratik eta Esloveniatic ere heldu dira argazki gehiago. Oraindik ere zuen argazkiak Hitza-ren Argazki Lehiaketara bidaltzeko epea zabalik dago. Parte hartu!

Uraren edertasuna

ZARAUZT ■ Eskualdetik gertu ere badugu hondartza, eta ederra gainera. Zarauzkoa da horren adibide, nahiz eta tarteka itsasoak jan egiten duen. Xabierrek argazki hau bidali du lehiaketara. «Abuztua bukatu aurretik ateratako argazki bat da Zarauzko malekoian, itxasoa oso gaiztoa zegoen baina ikusizun aparta hondartzarik ez zegoen eta». XABIER ESNAOLA (TOLOSA)




FUERTEVENTURA ■ Hondartza beti izan da oporretara joateko leku aukeratuenetarikoak. Eta eguraldi ona ziurtatzen bada, hobe. Juan Luis Artola, esaterako, Fuerteventuran izan da eta itsasoko olatu harrapatu du bete-betean harkaitzaren aurka joaz. Hauxe azaldu digu, motz-motzean: «Fuerteventuran ateratako argazkia, Jon olatuaren Zain!». JUAN LUIS ARTOLA (LEITZA)

A Agurrak



Urte askoan!

Aniceto Sarasola. Zorionak zure 85. urtebetetzean etxekoak eta Miguelen partetik.



ESLOVENIA ■ Ez dugu informazio gehiegi argazki honen inguruan, baina Izaskunek Eslovenian ateratako dela azaldu digu. Ederra, behintzat bada... IZASKUN CARBALLO (TOLOSA)